

EGUZKIAREN SARRERA.¹



Zabaldutzen danean
 Gabaren mantua,
 Izar ederrez oso
 Apaindutakua;
 Galditzean isillik,
 Dena umildua,
 Berriketan zebillen
 Chori berritsua;

¿Ikusten dezu nola,
 ¡O nere usoa!
 Bere lekura joaten
 Dan Sortitz osoa?
 Chorichoa kabira,
 Mendira lañoa,
 Eta Zeruetara
 Likurta gozoa?

¿Ikusten nola lore,
 Landare bigunak,
 Billatutzen dituzten
 Nor bere lagunak,

Elkarganaturikan
 Elkarren kutunak,
 Gozoki pasatzeko
 Gau-ordu aztunak?

Bada, nere usoa,
 Penaren odeiyak
 Biotzean dakazkit
 Osoro lodiyak:
 ¡Ainbeste denbora da
 ¡Bai! nere begiyak
 Poztu ez dituela
 Zure eguzkiyak.

Illuntzea neretzat
 Gaur ¡zéñen luzea!
 Aspalditik faltarik
 ¡Ai! argi maitea:
 Eta biotzarentzat
 Da miñerazlea,
 Onen ondoren triste
 Gaba etortzea.

(1) Traducción de la 5.^a de las poesías catalanas tituladas *Postes de sol*, de D. Joaquin Rubió y Ors.

Ez dezala nai Jaunak
 Gaba zabaldurik,
 Arki nazala emen
 Triste ta bakarrik:
 Egun-sentiya argitu
 Baño lenagotik,
 Geldituko nintzake
 ¡Bai! naigabez illik.

Bañan ¡ez! zergatikan
 Uso maitechoa
 Dago nigana nayan
 Urrungaz ¡gaiñoa!
 Eta bere urrunga
 ¡An! urrutikoa;
 Da: ¿noiz arkituko det
 Nere kabichoa?

Uso nerea, arren
 Egoak zabaldu:
 Zure lagunak ere
 Zabalduak ditu:
 Gau-itzalak badatoz;
 Argiya joan zaigu:
 ¡Ai gabak, berezirik,
 Arkitzen bagaitu!

Zure egope maitean
 Semea gorderik,
 Ala nola choriyak
 Umea gozorik,
 Ekarri zaitzatela
 Aingeruak ortik,
 Dena zuentzat dedan
 Biyotzera, ariñik.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

